


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/09/26) Hurrengo saioa: 2018/10/09	Ikastaroak (Zunba, Pilates) eta kobrantza	Aurten eskaini ditugun ikastaroen ordainketa moduaz aritu gara. Parte-hartzaileak helbideraketa agindua baimentzeko txantiloia bete beharko du. Kobrantza hiruhilabeteka egingo da (urrian, urtarrilean eta apirilean). Norbaitek eragozpenen bat izango balu, kontu-zenbakia emango zaio, helbideraketa berak egin dezan.	Helbideratze orriak jaso eta administrariari pasa.
	Kakorraz edo gantxillo ikastaroa	Urriaren 11n hasiko den ikastarorako izena eman dutenez gain, gainontzeko herritarrei ere parte hartzeko aukera luzatzea proposatu da.	Komunikazio batzordean prestatutako oharra watsapez pasa
	Euskaraldia	Auzolanaren barruan, Euskaraldiaren inguruko tailerra antolatu dugunez, oraindik izen-ematea egin ez dutenentzat aukera egongo da bertan izena emateko.	
	Escivi ikus-entzuneke zentroaren eskaera	Andoaingo Escivi ikus-entzuneke zentroko ikasle talde baten eskaera iritsi da e-mailez. Bertan <i>Herri txiki, infernu handi</i> TB programaren antzeko formatua erabiliz, herriko 4 pertsoneri grabaketa bat egin nahiko liekeela diote. Gaia aztertu da eta grabaketak zein helburu izango lukeen, editatu ondoren, ze erabilpen emateko asmoa duten, herri txikiei buruz eman nahi den proiektzioa zein den,.... galdetzea erabaki da.	Beraiengandik jasotako erantzuna aztertu
	Auzolana	Aurreikusten diren guneak, ekintzak eta zeregin zehatzak zerrendatu dira.	Hurrengo batzordeetan lanketarekin jarraitu
	Euskera ikastaroa	Urriaren hirugarren astean emango zaio hasera Itsason euskara ikasteko ikastaroari. Berez goiz eta arratsalde egitekoa zen kurtsoa goizekora mugatua izan da AEK-k ezartzen dituen kopuru minimoetara iristen ez ginelako.	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/10/02)	“Herri Bizitza” indartzeko jarduerentzat diru-laguntzak	Diru laguntza hauen helburua landa eremuko udalerrri txikietan herri-bizitza garatzeko eta komunitate-bizitza sustatzeko gauzatzen diren jarduerak finantzatzeko da. %75a finantzatuko lukete, gehiengo diru-kopurua 3000€ litzatekeelarik. Itsasok aurtengo urtean egindako proiektu berritzaileetarako eskatuko dugu: Udalekuetan egindako robotika, zeramika tailerra, Ibur hipika eta Kirola herria ezagutzuz; Kirola sustatzea herriko nagusien artean; Auzolan egunak; Hirugarren adinekoentzat ariketa psiko-estimulatiboen tailerra; Euskara ikastaroak.	Drive-n sortutako txantiloian hauetako proiektu bakoitza garatzen joan (sarrera, helburua, nori zuzendua, partaide kopurua, kronograma,...)



Hurrengo saioa: 2018/10/16)		Eskaera egiteko epea urriaren 15era bitartekoa da.	
	Urriko eta azaroko ekintzak	Urriko eta azaroko ekintzen egutegia osatu dugu. Bertan auzolana, Euskaraldiaren ekimenak (gomendioak, kantu-afaria, ...) eta erretiratuen eguna adierazi dira.	Jakinarazpena herrian banatu
	Auzolana	Urriaren 27ko auzolanaren jakinarazpena bideratu da eta aurreikusten diren ekintzak eta beharrezkoak diren materialak zerrendatu dira.	Hurrengo batzordeetan lanketarekin jarraitu
	Erretiratuen eguna	Erretiratuen eguneko egitaraua zehazten saiatu gara eta jakinarazpena prestatzen hasi gara.	Jatetxeekin menua adostu eta oharra banatu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/10/03) Hurrengo saioa: 2018/10/17	Auzolana	Auzolanean aurreikusten diren ekintzetarako beharrezkoak diren materialak zerrendatu ondoren, erosi edo eskuratu beharrezkoak nondik eta nork egingo dituen erabaki da. Ekarri beharrezko materialaren artean: San Lorentzora ura eta hodia pasatzeko zanjadora bat; San Lorentzorako mahaia, iturria eta aska; igeltseritzako materiala; panel berriak jartzeko 6 marko; traktorea eta ibilbidean jartzeko posteak eta logoak; seinaleak; hesolak, desbrozadorak; pankartetarako plastikoak, txapak, errotulagailuak;...	Gaur egun dauden paneletako markoak neurtu eta beharrezkoak diren materialak eskatu.. Markatu nahi den ibilbideko puntu esanguratsuak non izango diren zehaztu. Lursailen erabiltzaileek eta jabeekin proiektua partekatu.
	Komun publikoa Itsason	Udaletxeko sarrera egokitzeko lanak hastera doazen honetan, proiektuan txertatzeko proposamena egiten da orain dagoen komunari atea lekuz aldatu eta ataritik sarrera izan dezan, edozeinen eskura.	Arkitektoarekin proposamena landu